

**BATETIK, EUSKO JAURLARITZA, ARABAKO, BIZKAIKO
ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEN ETA, BESTETIK,
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO 2004. URTERAKO
*HITZARMEN ERANTSIA***

BILDURIK

Batetik:

MIREN AZKARATE VILLAR andrea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua.

FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN jauna, Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua.

BELEN GREAVES BADILLO andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako foru diputatua.

JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diputatu nagusia.

Bestetik:

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, euskaltzainburua.

Euskaltzaindiaren lan-jardunari dagokionez, 2002ko azaroaren 19an Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, batetik, eta Euskaltzaindiak, bestetik, izenpetu duten eta indarrean dagoen hitzarmenaren arabera eta hura betetz, bertan, 2004. urteko diru-ordainketak eta urte horretan egin beharreko lanak ezartzen direlarik,

HITZARTU DUTE

I. Aurrekontu Arruntaren (157.467,09 euro) erabiliko ditu Euskaltzaindiak ikerketa eta garapen alorrean, ohiko batzorde akademikoen eginkizunak burutzeko: Hiztegiak (Hiztegi Batua), Gramatikagintza, Dialektologia, Onomastika, Literatura Ikerketa, Herri Literatura, Euskara Batua, *Jagon – Corpus*, *Jagon*– Sustapen eta Azkue Biblioteka. (*Ikus 1. eranskina*).

II. Ohiko argitalpenak: Aurrekontu Arruntaren (58.980,51 euro) erabili-ko ditu Euskaltzaindiak, txostenak eta agindutako lanak, *Euskera*, 2003, 2 / *Euskera*, 2004,1 / Euskaltzaindiaren *Araua*k (dagozkion sortak) *2003ko Oroitidazkia* eta *Argitalpenen Katalogo* eguneratua kaleratu ahal izateko. (Ikus 2. eranskina).

III. Gainerako (1.741.609,73 euro) Aurrekontu Arruntaren ondorengo gastuak ordaintzeko erabiliko ditu: Inbertsioak, ohiko gastuak eta zerbitzuak, zergak, gizabanakoen gastuak, finantza gastuak, aparteko gastuak, ... (Ikus 3. eranskina).

IV. Herri Aginte sinatzaileek *Orotariko Euskal Hiztegia* eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoetarako 560.989,67 eurotako laguntza emango diote Euskaltzaindiari. (Ikus 4. eranskina).

V. Protokoloa sinatzen duten Herri-Agintee, 2004.urtean, 2.519.047 eurotako diru-laguntza eskuratuko diote Euskaltzaindiari, ondorengo banaketaren arabera:

Agintea	Koefizientea	Aurrek. Arr.	Oeh+Ehha	Guztira
E. J.	%68,18	1.335.074	382.502	1.717.576
AFA	%2,84	56.706	15.958	71.664
BFA	%17,43	341.375	97.806	439.181
GFA	%11,53	225.905	64.721	290.626
	%100	1.958.060	560.987	2.519.047

VI. Dirubide hauek honela bideratuko dira:

– Lehen ordainketa aurrekontu arrunta osoaren erdiak osatuko du, eta urteko protokoloa izenpetu eta bi hilabetera gauzatuko da.

– Bigarren ordainketa aurrekontu arruntaren bigarren erdiak osatuko du, eta, dagozkien justifikagiriak aurkeztu eta hilabetera.

VII. Euskaltzaindiak dituen egitarau guztiek ikuspegi akademikotik izan duten betetze-mailaren berri emango die Herri Aginteei urteroko protokolo erantsian bildu beharko lirakeen lehentasunak ahalik eta hobekien finkatu eta adostu ahal izateko

VIII. Bestalde, informatizaturiko *corpusen* erabilerari dagokionez, *hitzarmena* sinatzen duten Herri Aginteek euskalgintzan, (euskararen ingeniari-ritza-industrian, itzulpengintzan, terminologian, liburugintzan, unibertsitateko ikerkuntzan...) diharduten elkarte edo enpresekin izan ditzaketen hitzarmenak direla medio, direlako elkarte eta izakundeek *corpus* horiek doan erabiltzeko aukera izango dute. Edonola ere, Euskaltzaindia ez den beste inork *corpus* ho-

riek erabiltzeko ezinbestekoa izango du Euskaltzaindiaren beraren eta HPSren idatzizko baimena eskuratzea

IX. Euskaltzaindiak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) 2004. urteko abenduan amaituko duela *Orotariko Euskal Hiztegia* egitasmoa.
- b) 2004. urtean ez duela gehituko langile finkeen kopurua ezta Herri Aginteekin sinatutako *Hitzarmenaren* bidez babesturiko egitasmoetan dihardutenen gizabanakoen kopurua.
- c) 2005. urterako, Administrazioaren aurrekontu egiturari eta Kontabilitate Egitura Orokorrari egokitutako Aurrekontuak aurkeztuko dituela.

X. Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren seigarren klausulan araupetutako Jarraipen Batzordeko batzordeburu eta idazkari karguen honako ordezkotza-sistema finkatzen da Administrazio eta Prozedura arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 23.2 eta 25.2 artikuluek xedatutakoari jarraituz:

– Batzordeburuaren ordezkotza: kargua hutsik egonez gero, gaixorik egonez gero, kanpoan egonez gero edo bestelako legezko arrazoirik izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatuko du batzordeburuaren ordezkoa.

– Idazkariaren ordezkotza: kargua hutsik egonez gero, gaixorik egonez gero, kanpoan egonez gero edo bestelako legezko arrazoirik izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatuko du idazkariaren ordezkoa.

Ondorioz, honako dokumentu hau 2002ko azaroaren 19an sinatutako hitzarmenari eransten zaio, haren zati bihurtzen delarik.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaide ezberdinek honako dokumentu hau izenpetzen dute boskoitzez.

Bilbon, 2004ko azaroaren 16an

MIREN AZKARATE VILLAR andrea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua.

FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN jauna, Arabako Foru Aldundiaren Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua.

BELEN GREAVES BADILLO andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kulturako foru diputatua.

JOXE JOAN GONZÁLEZ DE TXABARRI MIRANDA jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren diputatu nagusia.

JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, euskaltzainburua.